

11. Ezina ekinez egina

AZTERTZEKO ARLOA

Euskaraz aritu nahi dugunean, baina ezin dugunean, badugu ezintasuna indar eraldatzaile bihurtzeko aukerarik.

Eragiteko eta egoera aldatzeko hainbat bitarteko daude, erakunde publikoek zein euskalgintzak sortutakoak. Hizkuntz Eskubideen Behatokia, Elebide, Euskararen Telefonoa, Akuilari eta antzekoak lagungarriak izaten dira pertsonalki bizi izan duguna aztergai bihurtu eta egoera aldatzeko baliagarria izan dadin. Herri-tarrei horien berri ematea ere garrantzitsua da euskaraz aritzeko ezintasuna indar eraldatzaile bihurtu dadin.



ISPILUARI BEGIRA

HIZKUNTZA ESKUBIDEAK: Elebide, Euskararen Telefonoa, Akuilari, Hizkuntz Eskubideen Behatokia...

Arazo zehatz baten aurrean, errazena eta ohikoena, udalera jotzea da. Udalaren Euskara sailak edo zerbitzuak kasuaren berri izan dezan, eta konponbidea bilatzen ahalegindu dadin. Udalaz gaindi, ordea, badira beste hainbat zerbitzu ere, euskaldunon hizkuntz eskubideak bermatzeko lagungarriak direnak.

GALDERAK:

- > Ezagutzen al duzu hizkuntz eskubideak bermatzeko zerbitzurik?
- > Erabili al duzu noizbait?
- > Erabili baduzu, baliagarria izan al zaizu egoera iraultzeko eta egoera konpontzeko?
- > Jokabide egokiak nabarmentzeko, ezagutarazteko eta txalotzeko bitartekoak ere badira. Ezagutzen al dituzu? Erabili al duzu horietakoren bat inoiz?



HAINBAT BITARTEKO

Udalaren Euskara zerbitzua edo saila

- Hurbilena edo ezagunena da herritarrarentzat. Bertan jaso dezake aholkularitza eta laguntza.

Hizkuntz Eskubideen Behatokia

- Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak sustatu eta bideratutako fundazioa. Euskal Herriko herritarren hizkuntza eskubideez arduratzen da eta eskubide horiek Euskal Herri osoan babestera zuzentzen du bere jardura.
- **behatokia.eus** / telefonoa@behatokia.eus / 948 146 172 / 627 524 782

Euskararen Telefonoa

- Behatokiaren doaneko zerbitzua da. Hizkuntza eskubideen urraketari konponbidea emateko tresna da.
- 948 146 172 / **euskararentelefonoa.com**

Elebide

- Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzua, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bideratutakoa. Eskaera edo kexen kudeaketa, informazioa eta aholkularitza.
- **euskara.euskadi.eus/r59-aleb/eu**

Akuilari

- Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren aplikazioa. Hizkuntza eskubideen urraketari erantzuteko zein hizkuntza jokabide egokia duten entitateak nabarmentzeko.
- Sakelakoetarako ohiko aplikazio zerbitzuetan eskuragai dago.
- **akuilari.eus**

ALORRA:

BITARTEKOAK

HELBURUA:

Herritarrek edo erakunde publikoek euskaraz egin ezin dutenean sortzen den ezina indar eraldatzailea bihurtzea, egoera iraultzeko eta konpontzeko dauden bitartekoak ezagutaraziz.

AZTERGAIAK:

Euskara zerbitzuak, Behatokia, Elebide, Euskararen Telefonoa, Akuilari...

URRATSAK:

· Hizkuntza eskubideak bermatzeko erakunde publikoek zein euskalgintzak sortutako bitarteko ezberdinak ezagutzera eman herritarren artean.



I+D
IDEIAK

- Hizkuntza eskubideak urratzen direnean, bitartekoak erabiltzen hasi. Kasu pertsonala estatistiketan agertzeko eta konponbide estrukturala lortzeko bitarteko egokiak dira.

- Talde, elkarte eta negozioen hizkuntza jokabide egokia aitortzeko bitartekoak ere badira batzuk.

- baduzu.eus ere ezagutarazi: euskaraz kontsumitu ahal izateko aplikazioa eta webgunea.